



"Ez hemen, ez inon. Eraso sexistarik ez"


Astearte iluntzean jendetza elkartu zen Andoaingo Goikoplazan, gizonezko batek eragindako jazarpena eta mehatxu larriak salatzeko / 3



Maila handiko musikari gazteak lehiari aritu ziren Andoaingo Piano Jaialdian / 10-11



"Axi" ilustratzailearen tailerra Urnietan, Mafalda izenburutzat hartuta / 5



Alonso diseinatzaileak zuzendutako erakusketa, Algodonerako emakumeak gogoan / 4



Mendizabal Master Cup lehiari arituko da, ETBk zuzenean eskainiko duen partidari / 13



Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideek lehiari ekin diote, Eibarren eta Donostian / 12

EULA
TOLARE SAGAR, DOTEGIA
URNIETA

943 552-744
647 437 703

www.eulasagardotegia.com

INGURUNE NATURAL BATEAN

- Ostegun eta ostiral eguerditan enkarguz.
- Larunbat eta igande eguerditan, 13:30etatik aurrera zabalik.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aurtengoak hamargarren edizioa behar zuen izan, baina agerikoak diren arrazoiak tarteko ekitaldi sinbolikoa antolatuko da. Basteron ipini dute hitzordua, larunbat honetan eguadiako 12:00etatik aurrera. Kultur ikus-kizuna izango da, Pausoz Pauso kalejiraren garrantzia azpimarratzeko baliagarria izango dena. Oraindik orain gogoan izango dituzte emakumezko askok, lehen edizio hartan Jone Larrañaga ekitaldiko aurkezleak irakurri zuen adierazpena: "Martxoak 8 egin berriak ditu, eta 8 emakume bildu ditugu gaur hemen. Eta haien altzoan 80 ekarri. Eta haien bitartez 800 gogoratu. Eta 8.000ren lana azpimarratu, akaso 80.000rena. Zenbat emakume biziko zen gure herrian? Denak gogoan izan nahiko genituzke. Guzti-guztiak. Itzalpean izan diren guztiak atera nahiko genituzke argitara. Atera plazara, gaur gizon eta emakume, haur, gazte eta helduk bete dugun plaza honetara". Adierazpen hori Goikoplazan irakurri zuen, berdintasunaren aldeko ibilbidea osatu ostean. Geroztik, Bastero plazatxotik atera eta herrigunean barrena ibilbidea egin izan da.

Ekitaldia gogoan hartuta, datozen egunetan paneltxoak ipiniko dituzte ibilbide osoan zehar. Edizioz edizio protagonista izandako emakumeen irudiekin osatutako muntaia izango da.

Andoainen bertan sortutako ekitaldia da "Pausoz pauso" ekimena, ariketa bikaina jende arruntaren ahalduz bidean.



2012an abiatu zen "Pausoz pauso" berdintasunerantz antolatutako martxa-kalejira. AIURRI

"Pausoz pauso" ekitaldia Basteron

Aurtengo ekitaldi guztien artean bada bat xarma berezia zuena: Pausoz pauso martxa-kalejira. Hamargarren edizioa ospatu behar zen 2021 honetan, baina pandemiak bere horretan egitea galerazi du. Ordezko ekitaldia antolatuko dute Basteron

Ekitaldi sorta zabala

Martxoak 5, ostirala

Erakusketa: "Algodoneraren emakumeak", Fanny Alonsoren eskutik. 18:30, Bastero.

Martxoak 5-26

Erakusketa: Emakume famatuak. Gazte Lokala.

Martxoak 6, larunbata

Ekitaldi berezia: "Pausoz pauso", X. urteurrena. 12:00, Bastero.

Martxoak 8, astelehena

Manifestazioa, Andoingo Asanblada Feministak antolatuta. 18:30 Goikoplazatik abiatuta.

Martxoak 9-13

Erakusketa: "Emakumeak Andoainen" erakusketa. 17:00-20:00 Ludoteka.

Martxoak 11, osteguna

Antzezlan: "Txanogorritxotik otso emera". 19:00 Bastero, auditorioa.

Martxoak 12, ostirala

Diaporama: "Emakume gazte bidaiaariak". Hizlaria: Amaia Armendariz. 18:00, Bastero.

"Un grito de mujer" flamenko ikuskizuna. 19:00, Bastero.

Martxoak 13, larunbata

Txapa tailerra. 10:00-13:00, Ludoteka.

Martxoak 14, igandea

Haur antzerkia: "Kotondarrak". 17:00, Bastero.

Martxoak 16, asteartea

Zinema: "La boda de Rosa". 18:30, Bastero.

Martxoak 18ra arte

Sormen lehiaketa: "Guztiok izan beharko genuke feminista" liburuarren inguruan. Lanak aurkezteko epea: martxoaren 1etik 18ra.

Pausoz pauso kalejirako protagonistak

2020 | Teresa Echavarri, Mila Garraida eta Laura Martinez, Mari Karmen Txapartegi, Albra Rodriguez, Arantxa Garmendia, Lidia Egido, Mertxe Belamendia, Josefa Pereira eta Valeria Viguera.

2019 | Maria Lazaro, Paula Nogales, Yolanda Canora, Andoingo Musika Banda Errepublikarreko emakumeak, Ane Jalon, Julia Corbo Bonilla, Izaskun Jauregi, Asun Garcia "Txonci" eta Andoingo Asanblada Feminista.

2018 | Rosi Agirre, Goyita Zubillaga, Marisol Fernandez,

Miren Erkizia, Izorne Tena, Miren Dominguez, Susana Cencillo, Ainhoa Zabala, Ihintza Oiartzabal, Maite Olmeño, Marta Diez, Nora Mendizabal.

2017 | Beatriz Amondarain, Miren Etxezarreta, Maite Belamendia, Angela Velo, Deiadar elkarte, Eva Gutierrez, Toñi Lopez, Haize Irulegi, Kontxi de la Fuente, Batukada feminista.

2016 | Milagros Sorrairain, Tere Otamendi, Itziar Gorostegi, Juanita Ikutza, Beatriz Garcia, Karmina Dominguez, Ixiar Arin, Marga Oyarzun, Gaztelekuko pala taldeko emakumeak.

2015 | Ixiar Oiartzabal, Maria Ormazabal, Maria Erkizia, Ambrosia Ponce, Rosario Guiu. Elena Lertxundi, Galardiko hezitzaile emakumeak, Alberto Agirre abesbatzako emakumeak, AEKko irakasle emakumeak, Rosa Luena, Eva Pelaez, Axeri dantza taldeko emakumeak.

2014 | Maria Luisa Gabirondo, Mertxe Saldias, Marikruz Lekuona, Ines Lekuona, Ana Maria Iribarren, Arantzazu Mujika, Ariane Kamio, Olaia Kamio, Olinda Monteiro, Maria Luisa Etxeberria, Toñy Abelló, Anabel Fernández,

Antonia Ayerbe, Amaia Arsuaga, Nerea Arsuaga.

2013 | Dolores Iztueta, Begoña Tolaretxi, Irene Arregi, Niko Langara, M^a Cruz Bidarte, Rosario Río, Esperanza Rodríguez, Maialen Santa Kruz, Ixiar Eizmendi, Leire Aizpurua, euskara transmititu duten amak.

2012 | Felicitas Irigoras, Jone Aldaz, Maria Jesus Fernández, Juanita Sancho, Teresa Régil, Nuria Serrano, Teresa Beneitez, Ainhoa Aiertza, Maixabel López de Arregi, Ane Huizi, Alaine Jauregi, Elixane Jauregi, La Salle-Berrozpe, Aita Larramendi Ikastola eta Ondarreta ikastetxeko ikasleak.



Dozenaka lagun elkartu ziren Goikoplazan, astearte iluntzean. AIURRI

Eraso eta jazarpenen aurkako elkarretaratzea

Azken hilabeteak zailak izaten ari dira Andoain bizi diren hainbat emakumerentzat. Gizonezko batek jazarpen egin ditu, eta mehatxu larriak egin dizkie. Andoaingo Asanblada Feministak arazoa gizarteratu eta salaketa egiteari ekin dio



Elkarretaratzearen amaiera aldera manifestua irakurri zuten. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Salaketak ipini ondoren, eta epaileak hainbat neurri hartu baditu ere, gertaera larriek hainbat emakumeren bizimodua aldarazi dute. Mehatxurik eta beldurrik gabeko udalerrian bizitzea oinarritzko eskaera da.

Goikoplazan irakurri zuten manifestua

"Azken urtean mundua aldatu egin da, inoiz imajinatuko ez genukeen bezala Covid19aren pandemiak astindu egin gaitu eta ondorio sozial larriak eragiten ari da. Testuinguru horretan, esanguratsua izaten ari da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gorakada. Konfinamenduan zehar izandako egoerek agerian utzi dute benetako egoeraren larritasuna.

Eta Andoain ez dago errealtate horretatik kanpo. Azken hilabeteetan, Andoain bizi den gizon batek jazarpen eta mehatxu matxista larriak egin dizkie Andoaingo hainbat emakumeri. Indarkeria matxista desagerrarazteko, argi dago ez dela nahikoa gaitzespen-adierazpenak eta elkarretaratzeak antolatzea, baizik

eta arazoaren errora jo behar da. Gizarte-eredua aldatu behar dugu indarkeria matxistaren adierazpen guztiak ikusarazteko, kausak aztertzeke eta horiek ekiditeko eta desagerrarazteko ekintza zehatz eta eraginkorrak abian jartzeko, eguneroko bizitzan horiek justifikatzen edo babesten dituzten egiturak identifikatuz. Eta guztiok hartu behar dugu konpromezu hori. Hitzetatik ekintzetara jauzi egin.

Gure erabateko babes adierazten diegu erasotik haratago bizirauten saiatzen ari diren emakume guztiei, eta eskatzen dugu iker dadila beharrezkoa dena, testuingurua eta erasoaren aurretik dagoena. Emakumearen bakardadea sahistuz eta erasotzaileen irudia ukitu gabe geratu ez dadin.

Hau horrela erakundeei eskatzen diegu ezar ditzatela egitarazko indarkeria matxistari aurre egiteko beharrezkoak diren protokoloak, itunak eta adostasunak, gai honek agenda politikoan lehentasuna izan dezan, eragile guztien parte-hartzearekin, gizarte osoaren arazoa baita".

Algodoneratik Bastero Kulturgunera

“Mujeres del Algodon. Bizi istorioak” erakusketa ostiraletik aurrera zabalik izango da Bastero Kulturgunean. Etxeberrietan kokatuta zegoen Algodonera lantegiko emakumeak omentzea da erakusketaren helburu nagusia



Anne Galarraga komunikazio arduraduna, Fanny Alonso diseinatzailea eta Nerea Tuduri poeta. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

“Izugarrizkoak izan ziren Algodonerako emakumeak: Indartsuak, alaiak, nortasun handikoak... Lantegian lanaldia egiteaz gain, haurrak zaindu eta etxeko lanak egin behar izaten zituzten. Bizimodu latza bizitzea egokitu zitzaizen, baina oraindik bizirik diren bakar horiekin hizketan jartzen bazara, oroitzapen politak dituztela aitortuko dizute, eta iraganarekiko harrotasuna transmitituko dizute. Izan ere, eurentzat lantokia, sozializatzeko edota adiskidetasuna eta elkartasuna lantzeko topagunea ere izan baitzen”. Ez dugu ahanzi behar Algodonerako lantegia bi mendez (1857-1965) ehungintza eta oihalgintzan aritu zela, eta garai historiko hartan indarrean zen gizarte mentalitateak argi adierazten zuela amatasuna zela emakumearen funtzio nagusia.

Emakume langileak gogoan

Emakume horien ahotsa eta testigantza plazaratzea eta horrekin batera guztiak goratzea

eduki du buruan Fanny Alonso moda diseinatzaileak, erakusketaren egitasmoa aurrera eramateko orduan. Baina bide luzea egin behar izan du ideia nagusi horretara iristeko. “Kotoizko oihalekin lanean ari nintzela, Algodonera lantegiko emakumeen kontua aipatu zidan lagun batek. Etxeberrieta aldekoa naiz ni; Algodonera lantegi zaharreko aiurrietan jolasean ibilitakoa naiz, eta erakargarria egin zitzaidan ideia. Diseinatzeko orduan inspirazio-iturri polita izan zitekeela pentsatuta, ikerketari ekin nion, udal artxiboan arakatuz, erretratu zaharren atzetik ibiliz, emakume langileekin elkarrizketak eginez...”.

Horrela, 2020ko urrian, Algodonerako emakumeen oroitzapen

MUSIKA, POESIA, ILUSTRAZIOAK, ARGAZKIAK... ERAKUSKETAK ERTZ UGARI DITU

penetan oinarri hartuta, Fannyk zortzi soineko edo “look” erakutsi zituen San Telmon ospatu zen desfile batean.

Diseinatzailea ez zen desfile horretan erakutsitakoarekin konformatu, nolana ere. “Emakume langile horietako batzuekin harremanetan jarritz gero, errazago ohartzen zara zenbat sakrifikatu ziren euren familiak aurrera ateratzeko, zenbateko ekarpena egin zioten gizarteari, honek aurrera egin zezan, eta azken batean, ondorengo belaunaldiak zenbat zor diegun garenak garelako. Haien aldeko omenaldi gisa desfile bat egin eta kitto eginez gero, akaso fribolo samarra gera zitekeen ekimena. Aitormen publiko zabalagoa merezi dutela iruditzen

KOTOIZKO OIHALEKIN LANEAN ARI ZELA, ERAKUSKETA EGITEKO IDEIA GARATU ZUEN ALONSOK

zait, eta saiatu naiz dimentsio handiagoko ekitaldi duin bat osatzen. Horretarako, hasieratik eduki dut argi kultur adierazpen anitz bilduko dituen egitasmoa behar zuela izan”.

Oihal bereziak ikusgai

Moda diseinuari dagokionez, San Telmon erakutsitako jantziak egongo dira ikusgai, kotoizko oihalekin egindakoak dira; Algodonera lantegia itxi zeneko 60ko hamarkadan modan zen estiloa errespetatu du Alonsok, historiaren gorpulean jarraipena sinbolizatu nahi izan du. Horiekin batera, Algodonerako emakume gazteen euskal dantza taldeko jantzi bat berregin du Alonsok espreski, eta horixe ere bertan ipini dute. Bestalde, Zuloaga margolari famatuaren biloba den Maria Rosa Suarez Zuloagak panpinen kotoizko oihalak utzi ditu erakusketarako.

Hain zuzen, 50eko hamarkadan Enrique Suarez izan zen Algodonera lantegiko nagusia, eta haren alaba da Maria Rosa Suarez. “Andoainen urte batzuk egin zituen gaztetan gurasoekin batera, eta oso oroitzapen gozoak dauzka ordutik. Erakusketa ikustera gonbidatu nuen, eta poz-pozik etorriko zela erantzun zidan; irekiera ekitaldian bertan izango da. Bere ama Lucia Zuloaga zen, margolari famatuaren alaba. Emakume askok elkarrizketetan oso modu atseginean aipatu izan didate Lucia; nagusiaren emazte gisa, oso tratu gozoa edukitzen omen zuen langileekin; gogoko izaten omen zituen euskal nortasuneko adierazpenak, eta besteak beste, bere ideia izan zen euskal dantzari gazteen taldea osatzea”.

Oihalgintzaren atalean, azkenik, Pakita Tudurik utzitako antigualeko maindireak ikusi ahal izango dira erakusketan.

Osagai anitzeko erakusketa

Kultur adierazpide ugariarekin jantzi dute erakusketa, Alonsoren gogoari jarraituz.

Besteak beste, Nerea Bengoetxea kantagileak abesti bat sortu du okasiorako, Nerea Tuduri idazle olerkiak idatzi ditu, Maialen Porroy ilustratzaileak edota Dabid Argindar argazkilaria lan ikusgarriak sortu dituzte espreski erakusketarako.

Gainera, erakusketara hurbiltzen den herritarrek Alonsok Algodonera lantegiko zenbait

Ostiraletik aurrera zabalik

Martxoaren 5etik martxoak 20ra zabalik, Basteron.

• **Diseinatzailea:** Fanny Alonso.

• **Oihalak:** Fanny Alonso, Pakita Tuduri, eta, Maria Rosa Suarez.

• **Parte-hartzaileak:** Nerea Bengoetxea kantaria. Maialen Porroy ilustratzailea. Nerea Tuduri poeta. Dabid Argindar argazkilaria.

• **Liburua:** “Algodoneraren emakumeak. Mujeres del Algodon” (Egilea: Begoña Cabaleiro).



Fanny Alonsoren erakusketa San Telmon.

emakumerekin edukitako elkarrizketa grabatuak entzuteko aukera ere edukiko du. QR kodearen bidez, emakume horien ahotsak zein beren bizipen eta sentimenduei buruzko pasarte txiki batzuk eskura egongo dira erakusketan, hortaz.

Liburua, kalean

Bestetik, Begoña Cabaleiro kazetariak “Algodoneraren emakumeak. Mujeres del Algodon” 200 orrialdeko liburua idatzi du, euskaraz eta gaztelaniaz. Fannyk zehaztu duenez, “edizio mugatua da, 100 alekoa, eta horietako gehienak testigantza pertsonala eman duten emakume langileen edota erakusketan modu batera edo bestera lagundu dutenen artean banatuko dira. Hortik aurrera, eskaera badagoela ikusiko bagenu, ale gehiago argitaratuko genituzke”.

“Irudiaren munduan bizi gara, baina ez dakigu koloreak nahasten”

AINARA AZPIAZU "AXPI" ILUSTRATZAILE ETA KOMIKIGILEA

“Mafalda” ikastaroa emanen du larunbat honetan Urnietan. 10-14 urte bitartekoei zuzenduta dago

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hautzarotik dator kio Ainar Azpiazu “Axi” artistari marrazgintzarekiko interesa. Alabaina, adinean aurrera egin ahala, hainbat arrazoi medio, soziologiaren adarrari eutsi zion hasieran. Nolanahi ere, ezin izan zuen artearen bidea probatu gabe utzi, eta, egun, ogibide du, behin, zaletasun izan zena. **Hainbat euskarri darabilzkizu komunikatzeko, egunkarietako tiretatik hasi eta muraletara bitarte.** Hasiera batean, eskakizunak jasotzeari ekin nioenean, edozeri egiten nion aurre. Nire ingurukoek liburuekin egiten zuten lan gehienbat. Alabaina, erabaki nuen esparru batean soilik ez ardaztea, hortaz bizitzera helburu bainuen. Horrela, marrazkigintzaren alorrean gustuko ditudan esparruak aukeratu nituen: kartelak, eskuorriak, muralak, komini-tirak eta liburu-ruetako ilustrazioak, tartean. Apur bat ikuspegi zabalez begiratu nion ilustrazioaren munduari. Dena den, egia da formakuntza gehienak liburuak egitea bideratuta daudela.

Non sentitzen zara eroso?

Ez dakit zehatz-mehatz esaten. Euskarri bakoitzak bere mentoa du. Muralak oso gustuko ditut, baina urtean hiru bat egitearekin nahikoa dut. Esaterako, denbora luzez komiki batean lanean aritu banaiz, nahia go izaten dut hurrengo lana beste euskarri batean egin. Nire kasuan, normalean, nahiko tartekatuak izan ohi dira, eta gustuko dut hori, arnasa hartzen laguntzen didatelako aldaketek. **Balore jakin batzuei lotuta lan egitea gustatzen zaizu. Beraz, ez da kasualitatea Urnietako ikastaroan Mafalda izatea hizpide, ezta?**

Bai. Ez da kasualitatea nik balore jakinekin egiten dudalako



Ainara Azpiazu hernaniarra Urnietara dator asteburu honetan, tailerra ematera. AXPI

lan beti. Baina orain hilabete batzuk sortu zen proiektua, Quinoren heriotza medio, Donostiako Okendo kultur etxeak Mafaldari buruzko tailerra egitea proposatu zidanean. Hala, Urnietatik, espresuki, tailer hori emateko eskaera egin didate, martxoaren 8a dela-eta. Beraiek egin dute lotura hori Mafaldarekin, nahiz eta nik aurretiaz gaia jorratua izan. Aitzakia polita izan liteke pertsonaia femeninoa delako eta balore jakinak transmititzen dituelako. Gainera, lagun taldea du pertsonaiak eta ikastarora bertaratutako umeek izango dute zer aukeratu beren tira propioa egiteko. **Inoiz egin al duzu lan haurrekin?**

"MARRAZKILARI ON BATEN ATZEAN ORDUAK ETA ORDUAK DAUDE"

AINARA AZPIAZU, AXPI

Bai, eta oso gustuko dut. Oro har, haurrek ez dute izaten inguruan marrazkigintzarekiko sentsibilitatea duen inor. Baina gustuko duenak, oso gustuko du. Ondorioz, pena ematen du interesa duen pertsona bati bultzada ez ematea, hori nola bideratu ez jakiteagatik edota hori sustatzeko baliabideak ez izateagatik.

Gizartean ez dute garrantzirik arte bisualek. Irudiaren munduan bizi gara, baina ez dakigu koloreak nahasten: ez dakigu zer diren kolore primarioak eta sekundarioak. Ez dakigu nola funtzionatzen duen kolore batek bestearen alboan, zer den ongi konposatutako irudi bat. Arauak daude eta, horiek gure alde erabiliz gero, edozer sortzeko gai gara. Gainera, marrazkigintzak edozein ogibidetan izan dezake garrantzia, hots, gauzak grafikoki adierazten jakitea oso baliagarria da. Baina gizartean ez dauka merezi duen lekua. Denbora-pasa gisa ulertzen da eta amaitu egiten da adin batetik

aurrera. Pena ematen dit ume askok dakartelako berekin arte bisualekiko interesa, baina, besteak beste, hezkuntzak, bide hori oztopatzen du, hain zuzen, garrantzirik ez duen zerbait lege ikusten delako. Bizitzarako tresna serio gisa ulertu beharra dago marrazkigintza.

Marrazki bidez kritika handiak egin litezke, ezta?

Marrazkien bidez mezu bat helarazi dezakezu segundu gutxian, eta oso boteretsua da hori. Egun, gainera, ez dugu testu bidez jasotzen soilik informazioa; edukiak irensteko era azkarrarekin bat egiten du marrazkigintzak. **Dena dela, bada komikiak haurren kontua direla esaten duenik.**

Marrazki karakterizatuak haurrekin lotzeko joera dugu. Aitzitik, Mafalda ez da umeentzat, nahiz eta beraiek ere irakurtzerik duten. Ez dituzte nabardura guztiak ulertuko politikaz mintzo delako, besteak beste. Marrazkigintza haurtzaroarekin lortzen da, garrantzi handirik gabeko kontuekin. Eta hori beste arazo bat sartzen da jokoan: ez dakit zergatik duen jendeak haurren kontuak garrantzi handirik gabekoak direlako ustea.

Bestalde, marrazteak erronka bat du; denborak luze jo behar du ongi marrazten ikasteko; ez da erraza. Patxada eta pazientzia handia behar da. Halaber, ez ditugu baliabideak eskura: artean trebatzeko zenbat ikastaro daude? Badira musika-eskolak, ez, ordea, marrazketari bideratutakoak. Gainera, jeinuaren ideia hori dago, hots, badirudi ondo marrazteko gaitasuna mirariz eskuratutako ezaugarria dela. Marrazkilari on baten atzean orduak eta orduak daude.

Zer ematen dio ume bati marrazkigintzak?

Hitzorduak, datozen egunetan

Martxoak 5, ostirala

Zinema: “Erlauntza”. Lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera. 19:00, Sarobe.

Martxoak 6, larunbata

Tailerra: “Mafalda” tailerra 10-14 urte bitarteko haurrentzat. 11:30, Lekaio.

Martxoak 7, igandea

Kontzertua: “Incorrectas” 19:00, Sarobe.

Martxoak 8, astelehena

Elkarretaratzea. 19:00, San Juan plaza.

Martxoaren 18a arte

Erakusketa: “Emakumeak kirolari”. Iñaki Vergararen argazkiek kirolarien egunerokotasuna erakusten dute. 08:00-20:00, Lekaio.

Haurrek erantzun beharreko galdera dela deritzot. Baina nire ikasleei harrotasuna eta ilusioa ematen die. Ahalmena ematen dizu paperaren lau kantoien artean mundu bat sortzeko gaitasunak, baita mundu hori kontrolatzeko gai zarela ikusteak ere. Marrazkien bidez, nork bere nahiak islada ditzake, irudimena errealitate bihurtzeko boterea ematen du.



Urnietako
udala

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA EUSKAL HERRIA

Dena aldatu, sistema arrakalatu

Bi urte igaro dira azken Greba Feministan planto egin eta bizitzak erdiguneratzeko beharra aldarrikatu genuenetik. Urtebete igaro da jada azkenengo martxoaren 8tik, antolatu eta borroka feministara batzeko deia egin genuenetik. Ordutik, COVID-19ak eragindako izurrite testuinguruak, sistema honen dimentsio ezberdinetako krisiak azaleratu ditu. Lehertu dena, ez baita osasun-krisia soilik.

Herritarron osasunaren gainetik, Gobernuetatik kapitala lehenetsi da berriz ere. Mugak eta kaleak militarizatuta ikusten ari gara, abusu polizial eta instituzional arrazistak jasan ditugu, ehunka kide kaleratuak izan dira edo kaleratze arriskuan daude, milaka emakumek lan



Euskal Herriko mugimendu feministako ordezkariak Donostian, agerraldian. AIURRI

merkatua utzi behar izan dute zaintza lanengatik, agerian geratu da Euskal Herrian bertan erabakiak hartzeko ahalmen eza, espazio okupatuak desalojatu dituzte, indarkeria matxistak ez du

etenik izan eta krisialdiak eragin zuzena izan du eremu feminizatuetan, bereziki egoera irregularrean dauden emakume langileen eremuan. Aurtan inoiz baino gehiago, sistemari arrakalak sortzeko

konpromisoa adierazteko asmoz antolatu dugu martxoaren 8a. Osasun prebentziorako neurriek zein mugikortasun mugek ohikoak ditugun mobilizazio erak zailtzen dizkigute, baina kaleak salaketarako espazio izateko modua bilatuko dugu.

"Dena aldatu, sistema arrakalatu" diogu. Krisi hau ez zen pandemiarekin hasi, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministan orain ez gara isilik eta geldi egongo. Sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista arrakalatzeko feminismoan antolatu eta kolektiboki borrokan jarraitu behar dugu. Hain zuzen ere, bizitzak sostengatzeko ardurak kolektibizatze eta botere harremanak errotik aldatzeko.

Egunetik egunera gaurkotzen eta indartzen goaz

mugimendu feminista. Gure arteko arrazakeria bistaratu eta landuz, herri eta auzoetan aliantza sareak ehunduz, borrokarako espazioak zabalduz, mundu mailako ekintzetan parte hartuz... Euskal Herrian eta Euskal Herriatik dena aldatzeko lan egingo dugu. Aurtengo martxoaren 8an ere, bazter guztietan mobilizatuko gara.

Donostian, arratsaldeko 18:30ean Antiguako tuneletik hasiko da manifestazioa. Hiriburuez gain ere, herrietan hamaika deialdi egingo dira.

Dagokigun arduraz jokatuta, datorren martxoaren 8an kaleak eta plazak hartzera animatzen ditugu emakumeak, trans eta bollerak. Euskal Herri feminista, antikapitalista eta antiarrazista eraikitza goaz, gora borroka feminista!



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etbez etbekeo harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:

Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain),
Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietak).

Diseinua: Goiiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zero Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Eguneroko kutsatuak | Andoain



Abenduaren hasieratik ez genituen hain kutsatu gutxi izan Andoainen. URKO VALLEJO

Urnieta eremu berdean dago, eta Andoain gerturatzen ari da

Otsailaren 23an sartu zen Urnieta eremu berdean, eta Andoain izan daiteke hurrena


Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aditu ezberdinen arabera, egocera epidemiologiko onargarria da 14 eguneko intzidentzia tasa metatua 60 edo 50 kasu azpitik dagoenean. Otsailaren 23az geroztik Urnieta eremu horretan murgildu da (32,21). Gipuzkoako egocera Arabakoa eta Bizkaikoa baino hobea da, eta hori nabari da udalerrri handiagoetan ere. Andoaingo kasuan, esaterako, eremu berdearen ateetan dago. Gauzak ondo joanez gero, astearen amaierarako 60 azpiko intzidentzia tasan sartuko da Andoain. Udaberria iristearekin batera jarduera ugari aire librean egin daitezkeenez, pentsatzekoa da pandemiaren garairik zailenak atzean geratuko direla. Ez

baita ahaztu behar 2021eko urtarreleko intzidentzia oso altua izatera iritsiz ela Andoainen.

Urko Vallejo datuen azterketa egiten ari da. Eta oso datu argigarria eman du: "Abenduko lehenengo asteaz geroztik ez genituen horren kutsatu gutxi izan Andoainen: 7 egunetako epean, 3 bakarrik. Garai haietan 2 kutsatu izan genituen abenduaren 1etik 7ra, eta baita abenduaren 3tik 9ra ere".

Otsailaren 25etik 28ra ez zen kasu positiborik agertu Andoainen, eta martxoaren 1ean bakarra. 0 eta 1 arteko joera horretan jarraituz gero, Andoain eremu berdean sar daiteke. Modu horretan Urnietaren pareko egocera iritsiko litzateke.



IREKIA

Intzidentzia tasaren garapena

Azken hamalau egunetako intzidentzia tasa metatua nabarmen jaitsi da. Halere, azken egunetan goranzko joera apal bat antzematen da. Birusaren aldaera berriak egon daitezke igoera apal horren atzean.



Sagardui Osasun Sailburua, Zupiria bozeramailearekin batera. IREKIA

"90 urte baino gehiago dituzuenen txanda da orain"

Txertaketaren harira, Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak lasaitasunerako mezua zabaldu zuen


Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"Adinekoei lasaitasun mezua zabaldu nahi diet. Osakidetza deia jasoko duzue, eta txertoa non eta noiz jarriko zaizuen azalduko dizuete. Orain 90 urte baino gehiago dituzuenen txanda da". Gotzone Sagarduik adierazpen horiek asteartean egin zituen, Eusko Jaurlaritzak ohiko duen astearteko agerraldian. Gainerakoan, agerraldi berean, zehurtiaz jokatzeko dei egin zuen. Neurgailu batzuri erreparatuta, etorkizuna aurrikusteko zalantza handiak baitaude: "14 eguneko intzidentzia tasa metatua %24 murriztu da, azken zortzi egunetan. Beherakada hori moteltzen doala ondorioztatu daiteke erreproduzio in-

dizeari begiratzen badiogu. Momentu hauetan RO delakoa 0,88an dago. Eremu asistentzialean 268 pertsona daude ospitaleetan, eta 121 daude UCI-ZIUetako zainketa berezien unitateetan. Nahiz eta behera egin, asko dira oraindik".

Birusaren aldaera berrien agerpenak, gainera, pandemiaren portaerarekiko zalantzak areagotu ditu. Sagarduik zehurtzia eskatu zuen, prebentzio neurriak hartzen jarraitzeko: Distantzia, eskuen higieena, maskara erabiltzea eta espazio txikiak aireztatzea.

Ostiral honetan LABIk neurri murriztaileak arindu ditzake, baina gaurkoz ez dute argibiderik eman nahi izan.



IREKIA

Oinarritzako birsorkuntza tasa

Tasa 1aren azpitik egotea da onena. Eta azken asteetan nabarmen jaitsi bada ere, tasa egonkor dago. Azken bi egunetako tasa 0,88koa da, eta helburua tasa gehiago jaitea da.

Astez asteko garapena

Otsailean birusak ia ez du eraginik izan Urnietan, kasu bakanak besterik ez baitira agertu. Andoainen ere aldea handia dago urtarreleko eta otsaileko datuak alderatzen hasiko bagina. Azken egunetan ari da jaitsiera hori gehiago antzematen.

ANDOAIN

- **Otsailak 24-Martxoak 2:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 100,08.
- **Otsailak 17-Otsailak 23:** 11 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 140,11.
- **Otsailak 10-Otsailak 16:** 10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 240,19.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 680,54.
- **Urtarrilak 20-26:** 72 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 887,38.
- **Urtarrilak 13-19:** 61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.
- **Urtarrilak 6-12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.

URNIETA

- **Otsailak 24-Martxoak 2:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 32,21.
- **Otsailak 17-Otsailak 23:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 32,21.
- **Otsailak 10-Otsailak 16:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 144,95.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 499,28.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 23 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 837,49.
- **Urtarrilak 20-26:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 853,60.
- **Urtarrilak 13-19:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.
- **Urtarrilak 6-12:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.

Andoni Urbistondo URNIETA

Lanean hasteko gogoa zeukan Iguaranek (Urnieta, 53 urte), sos batzuk biltzen hasteko, baina baita gorputza ez herdoiltzeko ere. Langileen beharra handitu egin da, pitxerrear eta botilan zerbitzatzen ari baitira sagardoa, eta mahaietan platerak jartzen bezeroentzat. 50-70 lagunentzako tokia du momentuz, eta arauak gehixeago murriztea eskatu du, "bertaratu daitekeen jende kopurua handiagoa izateko".

Noiz ireki zenuten, eta zer moduz joan da?

Bi aste atzera ireki genuen berriz, ostiralarekin. Otsailak 19a izango zen. Hasi suabe antzean hasi gara. Gure bezero asko Donostiakoak dira, Tolosakoak ere baditugu talde batzuk, eta horiek, jakina, ezin dute momentuz guregana etorri. Mugatu egin digu horrek, baina Urnieta jendeaz gain inguruetakoa ere etorri da, horrek botilaren merkaturia birsortu du, tabernak ere sagardoa eskatzen hasi dira ireki ondoren... Bagoaz, pixkanaka. Fakturatzen hasi gara, lanean ere bai. Behar genituen biak. Sosa biltzen hasi, noski, baina lanean ere bai, zain egoteaz nekatuta baikaude.

Nola hartu zenuten epailearen erabakia?

Asko nabaritu zen gure mesedean. Arnasa hartzen hasi gara. Ni behintzat ezustean harrapatu ninduen, ez bainuen espero halako erabakirik hartzea. Harri-garria, edo txokantea izan zen, baina erabakiak gure panorama aldatu du erabat.

Erabakia jakinarazi ostean, segurtasun neurriekin gora eta behera ibiliko zineten, ezta?

Bai, dantza handi samarra izan zen egun batzuetan. Mahai batzuk kendu, bezero eta bezero artean metro eta erdiko tartea bermatzeko, arauak garbi jakinarazteko kartelak, edalontziarekin jantokitik kanpora ezin dela atera, adibidez. Eta gero ba jan-edanaren kontua. Alegia, orain bakoitzak bere plateran jan behar duela, zerbitzatzen dena, eta edan, ba pitxerretik edo botilatik, jantokiko arduradunari eskatuta.

Eta jendea, zer moduz sumatu duzu?

Orokorrean jendeak arauak errespetatu dituela esango nuke, ez dugu nabarmentzeko moduko konturik izan. Jendeak sagardotegi gogoa daukala sumatzen da, baina egoera orain aldatu egin da, bezeroak lasaiago daudela

"Ondo bidean, maiatza bukatu arte ireki nahiko genuke"

AITOR IGUARAN URNIETAKO EULA SAGARDOTEGIKO NAGUSIA

Gaur bi aste ireki zuen Eulak lehen aldiz, eta jendeak ondo erantzun du, arauak errespetatuz



Aitor Iguaran. AIURRI

esango nuke, sagardotegietan batzuetan hain ohikoak diren gehiegikeriarik ikusi gabe. Eseri eta geldirik geratu behar du, ezin du kupeletara jo. Horrek, dena den, langileontzat karga handia ekarri du. Platerak behar dira, bezero bakoitzarentzat bi, eta lehen dena plater bakarra-ekin egiten zen. Sagardoa ere noiznahi eskatzen dizute, normalean bezala, eta lehen upeletara joaten zen, gu sagardoa eramateaz arduratu gabe. Lana handitu egin da guretzat, eta egokitu egin behar izan gara. Lana egitearen poderioz ikasten duzu. Ireki genuen lehen larunbatean bete genuen, eta zetorren bezala egin behar izan genion aurre egoerari.

Zenbat lagunentzako tokia geratu zaizue segurtasun neurri berrien ondoren?

50 bat lagun edo, apur bat estimatuz gero 70 bat. Normalean jantokiak 120-140 lagunentzako tokia dauka, orain erdia. Baina bueno, ireki dugu eta gustura.

Pitxerra edo botila, zer eskatzen du gehiago bezeroak?

Pitxerra gehixeago. Guretzat erosoago botila da, mahaian utzi eta listo. Pitxerra sagardoz bete behar duzu. Pitxerrean sagardo berria jartzen dugu, botilan ez, lehenagotik botilaratua dagoena.

Eta txotx-a egiteko debekuaz, zer dio bezeroak? Ze iritzi daukazu zuk?

Niretzat sagardotegiko arima, xarma, upeletik edatea da.

Upeltegian egon, jende bueltan solasaldi bat egin, zazpi edo zortzi sagardo ezberdin dastatu, egurrezkoak edo herdoilgaitzak izan...

Txotx-a bueltatuko al da? Ez al zaigu ahaztuko?

Bai, bueltatuko da. Beno, nahi nuke behintzat, eta hala espero dut. Birus-a kontrolatzen bada, txarroa eta botila desagertu egingo dira berriz. Nik, behintzat, upela baldin badago, ez dut txarro edo botilarik eskainiko. Platera, aldiz, uste dut mantendu egingo dela etorkizunean ere. **Sagardotegia irekita edukitzeko eperik pentsatu al duzu?**

Nik pentsatuta ere beti pandemiaren baitan egongo dela esango nuke, ezta? Momentuz apirila bukatu arte irekita edukiko dugu, eta ahal bada, edo debekurik ez bada, maiatza bukaera bitarte ere eutsi nahi genioke. **Badira udan terrazak, edo atarian sagardotegia irekita edukitzeko asmoa duten jabeak. Zuk halako asmorik baduzu?**

Ez, guk betidanik barrukoak izan gara, eta pentsatu ere ez dut egin udan kanpoan sagardotegia jartzea. Aurrena martxoa pasa dadila, ea zer moduz, eta gero-gerokoak.

Litekeena da LABi Batzordeak segurtasun arauak murriztea edo arintzea, ostiral honetan. Sagardogileek eskatzeko aukera bazenute, zer eskatuko zenukete?

Batez ere bi kontu. Lehena mahai-ko lau laguneko muga hori seira handitzea. Pentsa sei laguneko koadrila bat etortzen dela, bi mahai oso prestatu behar dira, hiru eta hiru, seiek batera ezin dutelako eseri. Mahaiko sei lagun jartzeko baimenarekin 20-25 lagunentzako handituko litzateke sagardotegia, kopuru handia da hori.

Beste neurria, mugimendua alboko herrietako herritarrengana mugatzea agintzen duen araua kentzea.

Iaz denboraldiko bi hilabete galdu zenituzten, aurten beste bat...

Buelta emango al diozue? Laguntzarik jaso al duzue?

Hori ez da errekuiperatuko, eta jasotako diru laguntzak eskasak izan dira. Nik pultsu baten moduan ikusten dut egoera. Pandemia hau etorri zaigu, erauntsiari eutsi behar zaio, eta pasatzen denean, berriro hasi. Urteak daramatzagu lanean eta negozioiak gorabeherak izan ditzakeela jakitun gara.

Sahara gogoan hartuta

Elkartasun ekitaldia egin zuen Hurria-Sahara elkarteak, Bastero Kulturgunean. "Fusilak edo pintadak" dokumentala eskaintzeaz gain, Limam Mohamed Ali Frente Polisarioak Euskadin duen ordezkariaren hitzaldia entzun ahal izan zuten herrikideek



Hurria Saharako kideak Frente Polisarioko ordezkariarekin eta Andoainen bizi diren saharauiarrekin batera. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

1976az geroztik Marokok Mendebaldeko Saharan okupatuta dauzkan lurraldeetan Equipe Media prentsa-agentziako kazetarien egunerokoa kontatzen du ikus-entzunezkoak. Bizitzako arlo guztietan zapalkuntza jasaten dute sahararrek, eta errealitate hori munduan zabaltzen saiatzen dira dokumentalaren egileak, Marokoren blokeo mediatikoa gaindituz. Bitarteko tekniko eskasekin, egoerarik klandestinoenean eta euren bizia arriskuan jarriaz aritzen dira.

Frente Polisarioak Euskadin duen ordezkaria mintzatu zen ekitaldian. Euskal Herrian erakunde publiko, alderdi politiko, sindikatu eta herrietako elkarreetatik jasotzen duten babesa eskertu ostean, historia hurbilaren kontakizuna egin zuen, labur. M. Limam Mohamed Alik adierazi zuen Espainiak ikuspuntu etiko, humano eta historikotik dagokion erantzukizunari uko egin izan diola azken hamarkadetan, gobernuan agintzen batzuk zein besteak egon, zoritxarrez.

1991n Saharako herriak Marokorekin su etena sinatu zuela gogora ekarri zuen. NBEren babespean egin zen, eta hurrengo urtean erreferenduma agindu zuten. 30 urteren ondoren, ordea, atsekabeak gainezka egin duela ziurtatu zuen: "Batetik ikusi dugu Espainiak, Frantziak, munduko beste zenbait herrialdek eta lobby ekonomikoek Sahararen baliabide naturalei begiratzen diotela herrialde horretako herritarren giza eskubideei eta etorkizuna erabakitzeo eskubideari baino gehiago. Bestetik, zure solaskideak ez badu kontuan hartzen erakusten ari zaren tolerantzia eta borondate ona, egoerak ezin du bere horretan jarraitu. Sahara herri baketsua izan da beti, ez da handikeritan ibiltzen, eta indarkeria soilik inposatu zaien egoeratan erabili izan du".

"EGOERAK EZIN DU BERE HORRETAN JARRAITU. SAHARA HERRIALDE BAKETSUA IZAN DA BETI"



SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

**Andoaingo Bastero Kulturgunean
Martxoaren 28an, 12:00tan**

**Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats**

6€

ANTOLATZAILEAK




LAGUNTZAILEAK





Eli Pagola
Alaia Martin
Aitor Mendiluze

Iker Zubeldia
Andoni Egaña
Maialen Lujanbio

Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

OHARRA:
Emanaldia auditorioan izango da.
Segurtasun neurriak hartuko dira.



Iñaki Mujika. AIURRI



June Pastor. AIURRI



Leire Hernandez. AIURRI



Maier Ortega. AIURRI



Oihane Ulanga. AIURRI



Uxue Ricon. AIURRI

Izurriteak ez ditu piano doinuak isilarazi

Hamasei urte egin ditu piano-jole gazteen formakuntzan bultzadatzkoa ematea helburu duen Jaialdiak. DEIadar talde antolatzaileak aurten ere piano doinuak Andoainera ekartzeko gogoari eutsi dio, eta bikain irten zaio erronka zaila



Francisco Escudero Kontserbatorioko musikariek emanaldia eskaini zuten, ostiral iluntzean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Hiru sari bereziak zein gainerako bakarlari modalitateko saio guztiak arrakastatsuak suertatu dira, beste behin. DEIadar elkarteak izugarritzko eskarmentua pilatu du urtetan, eta xehetasun guztiak egoki lotu zituen.

Myriam Ulanga antolakuntza-kideak aitortu zuenez “orain bost egun oraindik ez genekien ziur antolatu ahal izango genuenik. Baina gogoia eta fedea geneukan, tinko eutsi diogu asmoari, eta kontuan hartuta osasun protokoloa arau guztiak, aurrera egin dugu, zorionez. Anormaltasunaren baitan, ahalik eta normaltasunik handienarekin funtzionatu du Jaialdiak, eta poztekoa da hori”.

Batetik, partaidetza murriztu egin zuten, 289ra jeitsita; eta baita publikoa ere (bi pertsona piano jotzaile bakoitzeko). Eta bestetik, zorrotz bete arazi zituzten osasunari lotutako arauak larunbat zein igandean; parte-hartzaile guztiek pianoa jo aurretik eta eskuak garbitu zituz-

ten, eta denbora guztian muxe-koa kendu gabe aritu ziren. Auditorioko zein ekitaldi areto-ko pianoa bana saio bakoitzeko garbitu egiten zituzten.

Hiru Sari Berezieta, egundoko maila

Jaialdiak konpositore bat omentzeko ohitura dauka, eta Javier Gonzalez Sarmiento Donostiako piano jole eta konposatzailea izan da hautatua aurtengoan. Horrela, berak sortutako piezekin (Txikiludioak eta Preludioak) hiru sari berezi jarri ziren jokoan A, B eta C mailatan banatuta, larunbat arratsaldean. Gainera, berak ere epaimahai lanak bete zituen, Maruxa Lorente eta Itsaso Sainz de la Mazarekin batera. Guztira, 21 piano jole gaztek parte hartu zuten hiru sarietan. A maila: Malen Ursua Peña, Ander Villar Amores, Bingent Arandia Labaien, Ane Blazquez Barrajon, Ashley Michelle Castillo Chacon, Nabila Elhazzaz Manso, Leire Hernandez Dominguez, Ioana Hutsul Hutsul, eta, June Pastor Azofra.

B maila: Oihane Ulanga Etxeberria, Iker Arratibel Zotes, Jon Iñaki Elhazzaz Manso, Andrea Escobar Lopez, Iñaki Mujika Dumall, eta, Maier Ortega Barbero.

C maila: Maria Teresa Saiz Rodriguez, Sofia Sanchez Maestro, Joan Miquel Fiol Villegas, Alicia Maiza Vieites, Eguzki Ortiz Roca, Celia Pastor Muñoz, Uxue Ricon Ulanga, eta, Oihana Rodriguez Ordoñez.

Saridunak

A maila: 1. saria: Izar Nabila Elhazzaz (100 euro). 2. Saria: Malen Ursua (50 euro) eta Ashley Michelle Castillo (50 euro). B maila: 1. saria: Iker Arratibel. (150 euro). 2. saria: Jon Iñaki Elhazzaz.(100 euro). C maila: 1.saria: Joan Miquel Fiol (400 euro). 2. saria: Maria Teresa Saiz (110 euro) eta Uxue Ricon (100 euro).

Sariak Maider Lainez alkatearen, Txitxu Ruiz kultura zinegotziaren eta Lierni Iturralde Laboral Kutxako Andoaingo zuzendariaren eskutik jaso zituzten.

Gonzalez Sarmiento, asebeteta

Javier Gonzalez Sarmiento hunkituta agertu zen Basteron, antolaketagatik ez ezik baita parte hartzaileek erakutsi zuten mailagatik ere. Honela mintzatu zen, sari banaketan ondoren: “Preludioak eta Txikiludioak pandemia eta konfinamendua ezarri aurre-aurrean sortu eta grabatu ahal izan genituen. Egia esan, pianoko ikasleei eta irakasleei begira konposatu nituen. Didaktikoak izan zitezen nahi nuen, jazza, munduko beste hainbat erritmo, eta batez ere euskal doinuak (Ezpatadantza, Urkoren kanta bat...) nahastea, eta inprobisazioari bidea ematea izan zen nire asmoa, eta gaur, gazteen interpretazio zoragarriak ikusita, aitortu behar dut erabat beteta ikusi dudala nire ametsa. Ez dakit nola eskertu Andoaingo Jaialdiari”.

Sarmientok antolatzaileak zoriondu zituen eta ikuslegoari musikarekin gozatzen segitzeko eskatu zien, “bizi dugun osasun krisialdia errazago eramaten laguntzen digu, gainera”. Ikasleei begira jarrita, zera esan zien: “segi ezazue musika jotzen eta gozatzen, gaur egin duzuen eran. Eta jakina, nahi aldiro erabili nire partiturak!”.



Plax! egitasmoaren aurkezleak. AIURRI

Aholkularitza zerbitzu berria eskainiko du Andoaingo Udalak

Berdintasunezko harreman gozagarriak sustatzeko Plax! izeneko aholkularitza zerbitzua aurkeztu dute

Xabier Lasa ANDOAIN

Maider Lainez alkateak, Ainara Diaz berdintasun teknikariak eta Edurne Mendizabal Arremanitz kooperatibako sexologoak eman zituzten xehetasunak, joan zen otsailaren 25ean. Lainezek adierazi zuenez, Udalak helburu orokor batekin jarri du martxan Plax! sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua: “Gure udalerrian berdintasunezko harreman gozagarriak sustatzeko”.

Egungo jendartean, sexismoak indar handia izaten jarraitzen duela gogoratu zuen Lainezek, “eta horrek sekulako eragina dauka gure harremanak bizitzeko garaian. Beraz, ezinbestekoa da arlo erotikuari ere arreta sustatzea parekidetasunaren bidea egin nahi badugu. Norbera ezagutzea, elkar ezagutzea eta onartzea ezinbestekoa da elkarbizitza ona bideratzeko”.

Edurne Mendizabal Arremanitz kooperatibako sexologoak gidatuko du aholkularitza zerbitzua. Aurkezpen ekitaldian adierazi zuenez, osasun zerbitzu osagarria izango da Plax! aholkularitza zerbitzua. “Oso garrantzitsua da Osakidetzarekin, eta medikuekin edo ginekologekin elkar-langintza izatea, eta baita udalerriko beste zerbitzu edo lansailekin: Gaztedia, Hezkuntza, Kirola... Saretze horrek indartu egingo du Plax! zerbitzuaren funtzioa gizartean”. Doakoa da eta konfidentzialsuna errespetatuko du zerbitzuak; hitzordua eskatu beharra dago. Zerbitzu berriak sexuali-

tatea modu argi batez mintzatzeko aukera emango duela ziurtatu zuen Mendizabalek. “Pornografia da esplizituki hitz egiten duen bakarra, eta ez da onargarria eredu hori. Herritar guztiek egiten dugu sexu hezkuntza, modu batera edo bestera, eta ezinbestekoa da modu naturaltasunez jorratzea gaia. Eta ez soilik gazte eta helduekin, denok merezi dugu arreta hori”.

Oraindik ere tabuek guregan indar handia dutela gehitu zuen Mendizabalek, “iruditzen zaigu sexologoarengana doanak arazoren bat edukiko duela, eta oso oker gabilta, izan ere, geure bizitzan zehar, jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, behar desberdinak izaten ditugu: haurren esplorazioa, nerabeen jakinmin sexuala, hilerokoa, erotismoa edota eszitazioa, helduen giza harremanen edo bakarkako bizipenak, menopausia... Normalki, bizi-aro bakoitzean dakiguna edo ahal duguna egiten dugu, eta halakoetan bide-laguntza ezinbestekoa bilaka da-kiguke”.

“Tratu onen erotismoa”

Egunotan etxetik etxe zintzilarioak banatzen ari dira, harreman gozagarrietarako zenbait egoera gako azalduz. Besteak beste “gai-xotasun larri batekin edo ondoren erotismoa lortzea; erotika eta harremanak on-line: txikienetik helduenera, kezkak argitzea eta aukerak sortzea; norberaren gorputza ezagutzea eta orgasmoak sentitzen ikastea...



AIURRI

Erasoen aurkako hitzordua

Liskarrak, erasoak... Aurreko asteetan egoera zailak bizi izan dira Andoainean, elkarbizitzarekin lotura dutenak. Herritar talde batek elkarretaratzea deitu zuen, labankada jaso zuen herrikideari elkartasuna adierazteko. Isiltasunean elkartu ziren dozenaka lagun, otsailaren 27an. Txalo artean amaitu zen elkarretaratzea, Goikoplazan.



AIURRI

Presoen aldeko elkarretaratzea

Sare herritarra Andoaingo taldea ekimen betean ari da lanean, herriko presoen eskubideen aldeko defentsan. Urtarrilaren 9an manifestazio jendetsua antolatu zuen, eta aurreko ostiralean espetxetan daude presoen eskubideen aldeko elkarretaratze berria antolatu zuen, Zumea plazan.



andoaINDARRA
euskaraz



Leizaran taldeko neskak, Allurralde kiroldegian. LEIZARAN

Leizaran eskubaloit taldekoen lehen partidak

ESKUBALOIA Leizarango lehen taldeak maila bikaina erakutsi zuen, eta sailkapenean hirugarren daude

Erredakzioa ANDOAIN

Seniorrek maila izugarria erakutsi zuten, Egiaren aurkako partidari. Guztiz mendean hartu zituzten (31-18). Lurraldeko 2. mailan hirugarren postuan sailkatuta daude. Hurrengo partida, Txingudiren aurka jokatu dute etxetik kanpo.

Gizonezkoen jubenil mailakoak ere nabarmen gailendu ziren (35-10), Ordiziako taldearen gainetik igaro ziren, mendean hartu zituzten. Garaipenarekin lehen postua eskuratu dute.

Emakumezkoen jubenil taldeak, berriz, denboraldiko lehen norgehiagoka jokatu zuen baina zoritxarrez ezin izan zuten Ereintzaren aurkako partidari garaipena eskuratu (21-23).

Urnietako taldeak ere lehian

Gizonezkoen senior taldeak ezin izan zuten garaipena lortu maila izugarria erakutsi zuen Ba-

sauriren aurka (20-28). Markagailuak alde handia erakusten zuen arren, partida bestelakoa izan zen; urnietarrak markagailuan parez pare aritu ziren ia partida osoan zehar. Amaieran, basauriarrek maila fisiko hobea erakutsi zuten.

Emakumezkoen senior taldeak ligako lehen partida jokatu zuen, Irungo Txingudi taldearen aurka. Garaipen garbia eskuratu zuten (20-30). Lehen minutuetatik erasoan gogor aritu ziren aurkariari aurre hartuz. Defentsan ere lan ezin hobea egin zuten. Emaitza bikaina ligari ekiteko.

Gizonezkoen eta emakumezkoen jubenil mailako taldeek ere modu onean ekin zioten ligari; bi taldeak nabarmen gailendu ziren. Emakumezkoek Egiari aise irabazi zuten (27-19). Gauza bera gizonezkoek dago-kionez, Hernaniren aurka (16-37).



Ubitarten aritu ziren. J.M.ERAUSKIN

Azken txanpan berdindu zuen Ordiziak, Ubitarten

FUTBOLA Ohorezko

Erregional mailan, Euskaldunak eskura izan zituen hiru puntuak

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaindarren aurkariak azkeneko postuetan sailkatuta egon arren, borrokalari aritu ziren azken minutura arte. Andoaindarrak tinko eta irmo jokatzaren hasi ziren, erasoan asmatzen eta defentsan sendo agertuz. Markagailuan aldea atera eta gero, azken minutuetan iritsi ziren goierritarren bi golak. Irabazita zirudien partida, berdinketarekin amaitu zen (2-2). Ordiziak sailkapenean aurre hartu dio Euskaldunari. Andoaingo taldeak hurrengo jardunaldietan etekina ateratzen saiatu beharko du. Hurrengo partida Añorgan jokatu dute.



Fursenko eta Goikoetxea, junior mailako proban. ANDOAINGO

Txirrindulariek ekin diote denboraldi berriari

TXIRRINDULARITZA Jubenil mailakoek eta kadete mailakoek denboraldiari hasiera eman zioten, aurreko asteburuan

Erredakzioa ANDOAIN

Jubenilek 78 Km-ko lasterketan parte hartu zuten. Kadeteak erlojuaren aurka aritu ziren.

Jubenilak. Eibar | 21.02.28

53. Mikel Goikoetxea
63. Xabat Alonso
85. Iker Atxaga Galarza
113. Peru Alkain
126. Iker Atxaga Robles


Kadeteak. Donostia | 21.02.28

Mutilak:

7. Markel Etxarri
18. Iker Ugartemendia
28. Ekhi Arrieta
31. Ganix Ormazabal
71. Oihan Mitxelena

Neskek:

5. Intza Navarro
7. Izaro Zurriarain



Markel Etxarri. IRATXE TEJEDOR



Intza Navarro. IRATXE TEJEDOR

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!

- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Urpean lehiakor

IGERIKETA Buruntzaldea IKT taldeko kideek Donostiako Benta Berriko eta Tolosako Usabal igerileketan lehiari aritu ziren, joan zen asteburuan. Esnal duen maila berreskuratzeko lanean ari da. Elizaso, Audikana eta Azpiroz markak hobetuz doaz

Erredakzioa ANDOAIN

Garaia zaila bada ere, igeriketa ere egoerara egokitzen ari da. **Mikel Eснаlek** ez zuen marka pertsonal onena eskuratu, baina tximeletako 50 metrokoan berriro 26 segundutan aritu zen, bere marka onenera gutxinaka gerturatzuz. Denboraldia aurrera joan ahala geroz eta azkarrago igeri egiten duela antzematen da. **Eneko Elizasuk** 50 metro librekoa, 100 metro librekoa eta 50 metro bular probako markak ontzea lortu zuen; lehenengoan 26:50 segundotan egin zuen, bigarrenean kronoa 56:53an gertatu eta bular estiloko proba 34:18ko denboran egitera iritsi zen. **Izaro Audikanak** ere 200 metro libreko marka pertsonal berria lortu zuen: 2:21:53. Eta 200 metroko



Igerilariak ere lehiari murgildu dira. BURUNTZALDEAKT

lau estiloetakoan, berriz, 2:49:93. Tximeleta estiloko 50 metroetako marka pertsonala ondu zuen: 38:30. Bestalde, **Julen Azpirozek**

50 libreko marka eta 50 tximeletako ondu zituen, 29:66 eta 34:56 markak eginez, hurrenez hurren.

Mendizabal Master Laboral Kutxa txapelketan ariko da

PILOTA EITBk zuzenean eskainiko du saioa, arratsaldeko 15:30ean hasiko dena

Erredakzioa ANDOAIN

Ikuslegorik gabe bada ere, larunbat honetan Master Laboral Kutxa txapelketako final laurdenak jokatu dira Asteasu Usarrabi pilotalekuan. Garrantzia handiko partidak dira, eta iragarri dituzten pilotarien artean dago Nora Mendizabal andoindarra.



Nora Mendizabal. AIURRI

PARTIDEN ORDUTEGIA

12:00 | Lehen taldea:

- Irantzu Etxebeste - Olatz Ruiz de Larramendi / Amaia Aldai -Gentzane Aldai.
- Miren Larrarte-Ane Urkizu / Leire Garai-Ohiana Orbegozo.

15:30 | Bigarren taldea:

- Iera Agirre - Maite Ruiz de Larramendi / Andrea Aldaregia-Nora Mendizabal.
- Ainhoa Ruiz Infante - Arrate Bergara / Olatz Arrizabalaga - Naroa Agirre.

Arratsaldeko partidak zuzenean ikusteko aukera izango da Euskal Telebistan. Andoindarra lehiari ikusteko aukera paregabea da. Izan ere, pandemiak ezarritako araudia tarteko, ikuslegorik gabeko partidak izango dira.

ANE IRURTIA
(Lasarte, 22 urte)

Haur Hezkuntza graduako laugarren ikasturtea egiten ari da Mondragon Unibertsitatean.

www.mondragon.edu/prest

Gure ikasleen ahotsa

“Errealitate ezberdin asko ezagutzeko aukera izan dut unibertsitatean”

Definitu apur bat zure burua
Lasarteko Landaberri ikastolan ibili naiz eskolan eta batxilergoa Lasarte-Usurbil Institutuan egin nuen. Oso gustuko dut niretzat espazio eta denbora hartzea. Bestalde, herriko euskal dantza taldean ere banabil.

Zergatik aukeratu zenuen Haur Hezkuntza Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Txikitatik izan dut hezkuntzarako bokazioa, nahiz eta orduan asko aldatu zaidan hezitzailearen lanaren ikuspuntua. Ate irekietan entzun eta ikusitakoak erakarrita hasi nintzen Mondragon Unibertsitatean matrikulatzea.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Dena izan da berria. Nire ibilbidea aberatsa

izatea chalbide duen harreman asko eraiki ditut irakasle eta ikasleekin. Bestalde, errealitate ezberdin asko ezagutzeko aukera izan dut unibertsitatean bertan, eta batez ere, Latinoamerikan sei hilabeteko egonaldia burutu nuenean. Kosta egiten zait hitz gutxiak deskribatzea hilabete horietan zehar ikusi, ikasi eta bizi izan nuen. Beraz, nire esperientzia benetan aberasgarria izan da.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Pertsonarengan jartzen du fokua, era berean landuz harremanak, autonomia, autoezagutza, gizartea, gaur egungo errealitatea, etab. Orokorrean jasotzen ari gauden metodologekin alderatuta oso ezberdina da,

urteetan zehar barnatutako zenbait eskema hautsi eta zerotik hasi beharra dago aspektu askotan, eta hori ez da erraza, konfiantza handia jartzea eskatzen du, baina merezi du.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta hobetzekorik?

Epakelarik gabeko konfiantzazko talde giroa eraikitzean fokua jartzea, eta lau urteetan zehar irakasleen gehiengoak hartu duen bidelagun paperak asko aberastu du nire ibilbidea. Bestalde, atzerriko egonaldiak egin ahal izateko eskaintzen diren erraztasunak asko eskertu ditut. Hobetzekoari dagokionez, gurea berrikuntzan murgildutako lehenengo promozioa izanik, batzuetan epe laburrean zehaztasun inguruko informazioa eta zehaztasun falta sumatu dut.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 4

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketa. Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea. Haur, gazte eta helduen mailakoa da. **Epea: Martxoak 12. Sarobe**

OSTIRALA 5

ANDOAIN Outlet kalean

Salkinek antolatuta, eta Udalaren laguntzarekin, produktuak merke erosteko aukera bikaina egongo da. **Egun osoan zehar.**

ANDOAIN Erakusketa

Algodonerako emakumeei eskainitakoa, Fanny Alonsoren eskutik. **18:30, Bastero.**

LARUNBATA 6

ANDOAIN Tailerra

"Garenaz hausnartu eta zeharkatzen gaituzten zapalkuntza eta jarrerez arituko gara bertan". Andoaingo Asanbladak eta Trakak antolatuta. **10:30, Gaztetxea.**

ANDOAIN Ekitaldia

Pausoz Pauso, hamargarren urteurrenko ekitaldi berezia. Hitzordu guztiak, 2. orrialdean ikusgai. **12:00, Bastero.**

URNIETA Dantza

"Pop" emanaldia, Beñat Urretabizkairen eskutik. **19:00, Sarobe. Sarrerak agortuta.**

ASTELEHENA 8

ANDOAIN Martxoak 8

"Sistema kapitalista, heteropatriarkal eta arrazista errotik aldatzeko". Andoaingo Asanbladak eta Trakak antolatuta. **18:30, Goikoplazatik abiatuta.**

URNIETA Martxoak 8

Herritar talde batek antolatuta. **17:30, San Juan plazatik abiatuta.**

Urnietako Udalak antolatuta. **19:00, San Juan plaza.**



Aldarrikapen eguna izango da martxoaren 8koa.

ANDOAIN, URNIETA Aldarrikapen eguna martxoaren 8an

Emakume langilegoaren nazioarteko egunarekin bat eginez, hitzorduak egingo dituzte udalerrri guztietan. Andoainen Andoaingo Asanbladak Feministak manifestazioa antolatu du. Urnietan hitzordu bikoitza iragarrita dago. Manifestazioa gazteek antolatuta, eta elkarretaratzea Udalak antolatuta.

Martxoak 8, astelehena. Urnieta, 17:30. Manifestazioa San Juan plazatik.

Martxoak 8, astelehena. Andoain, 18:30. Manifestazioa Goikoplazatik.

Martxoak 8, astelehena. Urnieta, 19:00. Elkarretaratzea San Juan plazan.




Denda Berri Urnietako adinekoen irteera, artxiboko irudian. **AIURRI**

URNIETA Denda Berri elkartearen urteko batzarra

Ohiko Batzar Orokorrerako deialdia. Aztergaiak: 2020ko balantzearen aurkezpena eta onarpena; 2021erako jardura programa eta aurrekontua; zuzendaritza taldearen aldaketa; galde-erreguak.

Martxoak 6, larunbata. 17:30ean, bigarren deialdia. Denda Berri egoitza.

ZINEMA

**URNIETA****SAROB****Erlauntza**

Ostirala, 5: 19:00.
Martxoaren 8aren egitarauaren baitan antolatutako film emanaldia. Euskaraz.

ANDOAIN**BASTERO****La boda de Rosa**

Astearte, 16: 18:30
Ez, eskerrik asko!
Dokumentala.
Marboak 23: 19:00.



SINOPSIS

**Erlauntza**

Zuzendaria: Mireia Gabilondo. **Gidoia:** Kepa Errasti. **Aktoreak:** Leire Ruiz, Getari Etxegarai, Aitziber Garmendia, Itziar Atienza, Naiara Arnedo, Sara Cozar. **Herrialdea:** EH (2020). **Hizkuntza:** Euskaraz. **Azpitituluak** erdaraz. **Iraupena:** 92 min.

"Despedidea", eta beste

Gaztaroan lagun izandakoak nekazalturismo batera doaz asteburu pasa, haietako baten ezkontza despedida ospatzera. Euren arteko loturak handia izaten jarraitzen duen arren,

denborak bere bidea egin du. Trapu zaharrak, elkarri inoiz esan ez zituztenak... Animalien artean ondoen komunikatzen omen diren animaliak errealek dira.

SINOPSIS

**La boda de Rosa**

Zuzendaria: Iciar Bollain. **Aktoreak:** Candela Peña, Sergi López, Nathalie Poza, Ramón Barea. **Herrialdea:** Espainia (2020). **Generoa:** Komedia, drama. **Iraupena:** 100 min.

Den-dena uztea ez da hain erraza

Rosa 45 urte betetzear da, eta bere bizitza bazterrean utzi eta bizimodu berri bati ekin nahi

dio. Baina bere aitak, bere anaiek eta bere alabak bestelako planak dituzte.



EITB

'Herri Txiki' Urnietan dabil

ETB1eko "Herri txiki, infernu handi" saio ezagunaren atal bat grabatzen aritu dira Urnietan, egun hauetan. Herriko hainbat bizilagun elkarriketatu dituzte, eta ekitaldi nagusia martxoaren 11n egingo dute, herriko Udal pilotalekuan. Gonbidapenak eskuragarri izango dira Saroben, martxoaren 8tik aurrera. Ordutegia: 09:00-13:00 eta 16:00-18:00.



AIURRI

Gidabaimena euskaraz

Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dakar. Andoaingo, Urnietako eta eskualdeko udalek euskararen aldeko jardura ezberdinak sustatzen dituzte, eta gidabaimena euskaraz ateratzeko ekimena horietako bat da. Zozketa egin berri dute, eta Beñat Setien eta Aizpea Oria izan dira aurtengo saridunak. Astearte arratsaldean jaso zuten dagokien saria, 400 eurokoa.

La Oreja de Van Gogh, Basteron

Donostiako taldeak nazioarteko birari ekin aurretik entsegu orokorra egingo du Basteron. Emanaldi berezia martxoaren 10ean izango da, eta hainbat ikuslek bertatik bertara ikusteko aukera izango dute. Zozketa bidez erabakiko du Udalak. Argibideak Andoin.eus webgunean aurki daitezke.



LOVG



AIURRI

Egunean Behineko irabazlea

Miren Lopez de Munain andoaindarra da izan zen Egunean Behin denboraldi berriko hirugarren sariduna. Gaztañagako sagardoa irabazi du. "Txuruskita" k eraman zuen lehen saria (Mizpiradi), "Lupita" k bigarrena (Zabala) eta "Artxi" izan da laugarrena (Aburuza).

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Ibai!
Martxoaren 8an 20 urte beteko dituzu. Pilla pillla maite zaitugu... guapoooo!



ANDOAIN
Julen
Julen Gurrutxaga Aizpuruak martxoaren 15ean 9 urte egingo ditu. Ondo pasa zure eguna lagunekin!



ANDOAIN
Vanessa
Martxoaren 5ean urteak betetzen ditu. Ondo pasa zure egunean denon partez. Muxuak. Oinatz, Lander eta Lorea



ANDOAIN
Alaia Fernandez Saez
Martxoaren 8an 9 urte beteko dituzu. Jarraitu zaren bezelakoa izaten. Asko maite zaitugu.



ANDOAIN
Hegoa Mariezkurrena Zubillaga
Martxoaren 3an urtebete. Ze handia egiten ari zaren eta zenbat disfrutatzen ari garen zurekin! Ikaragarri maite zaitugu! Amatxo, aitatxo, Iker eta Haitz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 6, igandea 7

Monfort: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoaín.

URNIETA

Larunbata 6, igandea 7

Tanco: Idiazabal, 39.
943 550 942. Urnietá.

ODOL-EMAILEAK



ANDOAIN

Martxoak 9, asteartea

Arrate pilotalekuaren atzealdea.
16:30-20:30. Aurrez deitu beharra dago (943 007 884), egunean bertan goizeko 08:30etik aurrera.



- **Aste bakoitzeko sagardo kaxa bana zozkatuko da.**
- **Lehen 4 irabazleak: Txuruskita (Mizpiradi), Lupita (Zabala), Miren (Gaztañaga) eta Artxi (Aburuza).**

MARTXOAK 4 - 24

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Plateretik baratzera

Eskatu Nafarroa
hegoaldeko oliba-
olio birjina estra -5
litroka- eta arroza,
pasta eta kontserbak
-12 ontzika- euskaraz
etiketatuta
eta ekoizlearen
jatorrizko prezioan.

EKO



EKO

